



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 11

47. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege-aldaketak ez ditzan balia hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordezeko aldaeren laborantza susta dezan, transgenikoak kentze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zilbetiko harrobia ustiatzeko baimena eman aurretik eska dezan egun ustiatzen duen Eugiko harrobia lehengoratzeko proiektua. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen die Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxeko Emakumeari Laguntzeko Zentroa abian jar dezan. Osasun Batzordean izapidetzea (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioa jaits dezan. Osoko Bilkuran izapidetzea (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Esako urtegiaren izandako luiziei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Burlatako eskola-tailerrari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (9. or.).
- Galdera, gizarteratze- edo laneratze-errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioetik eratorritako lansari-gastuen finantzaketari buruzkoa, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (10. or.).
- Galdera, 2010az geroztik irakaskuntza publikoan izandako murrizketen ondorioz aurreztutakoari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (11. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege-aldaketak ez ditzan balia hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege-aldaketak ez ditzan balia hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

2012ko martxoaren 8an onetsi zen Tokiko Azpiegituren 2009-2012 Planaren aldaketa. Aldaketa hori onesterakoan, Nafarroako Gobernuari eusten dioten alderdiek argudiatu zuten ezen aldaketak ahalbidetuko zuela trabak kentzea, Nafarroako udalek obrak egiteko funtseko dirua baliatu ahal izan dezaten. Errealitatea, ordea, guztiz bestelakoa da; hau da, aldaketak bilatzen zuen gauza bakarra zen toki entitateek uko egitea jada aitortutako obrei, inbertsioak finantzatu ahal izateko politikak aplikatu beharrean; helburu bakar batekin, hain zuzen ere: Nafarroako Gobernuak izan ditza-

keen likidezia-arazoei aurre egin ahal izatea, Nafarroako udalen kargura, beste behin ere.

Egoera horrek frogatzen duena da garatzen diren politikak bideratuta daudela udalen finantzaketa-sistema ahultzera eta herritarrei oinarrizko zerbitzuak emateko aukerak murriztera, ezen ez sistema nahiko eta bidezko bat bultzatzera eta sendotzera. Toki Azpiegituren Planaren aldaketa ez da horren beste froga bat baino. Horra UPN, PSNren babes ulertezin eta ezinbestekoarekin, gizarte-politikaren arloan garatzen ari den murrizketen beste froga bat.

Politika alderrai horren ondorioz, udalak behartuta daude uko egitera beren herrirentzat oinarrizkoak diren jarduketei eta inbertsioei –Toki Azpiegituren Planean hala daude jasota– eta enplegua sortzeko inbertsioak garatzeari. Hobekuntza eta inbertsio horiek oinarrizko zerbitzuak emateko oinarrizko jarduketak baino ez dira, zerikusirik gabeak alferreko kapritxo eta diru-xahuketa gisa har daitezkeen jarduketekin; esaterako, Entzerreraren Museo, Los Arcosko zirkuitu eta abarrekin.

Jokabide horrekin, berriz ere zigortzen dituzte udalak, eta toki entitateen bizkar uzten dute Gobernuarena den arazo bat, auzitan jartzen dute udalen eginkizuna, eta arazo ekonomikoaren eta krisiaren parte balira bezala jartzen dituzte horiek, modu erabat arduragabeen. Krisia ez dute udalek sortu, eta herritarren eskubide sozialak eta bizikaltatea murrizteko erabakia ere ez dute toki entitateek hartu.

Egoera horren aurrean, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen honako mozioa aurkeztu dute, Nafarroako Parlamentuaren hurrengo osoko bilkura arruntean eztabaidatu eta bozkatzeko.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez ditzan baliatu indarrean

diren legeen aldaketak, adibidez Toki Azpiegituren Planari buruzkoarena, Nafarroako Gobernuak berak toki entitateekin hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko eta toki entitateei dagozkien eskubideak eta haien ahalmen ekonomikoa gutxitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurri guztiak har ditzan, oinarrizko inbertsioak eta enplegua sortzen dutenak lehenesteko, dirua xahutzen

duten inbertsioen eta krisi egoera batean behar ez diren inbertsioen gainera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Toki Inbertsioen Planean ezarritako epeak bete ditzan eta, ondorioz, aurre egin diezaion, epearen barruan betiere, udalei 2012an egiteko esleitu zaizkien obren finantzaketan berari dagokion zatiari.

Iruñean, 2012ko apirilaren 26an

Foru parlamentariak: Xabier Lasa Gorraiz, Víctor Rubio Martínez eta Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordezkoren laborantza susta dezan, transgenikoak kentze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ordezkoren laborantza susta dezan, transgenikoak kentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Genetikoki eraldatutako 5.000 inguru hektarea arto landatzen ari dira Nafarroan. Barietate hori Europako sei herrialdetan dago baimenduta, baina debekatuta dago Europar Batasuneko gairontzeko guztietan. Debeku hori ezarri da zalan-tzak sortu direlako pertsonen osasunean epe luzean izan dezakeen eraginarengatik, bai eta

kutsadura genetiko handiak espezie autoktonoetan duen eragin kaltegarriarengatik ere.

Artoaren landatze masiboaz gain, gero eta urrats handiagoak egiten ari dira genetikoki eraldatutako beste espezie batzuei dagokienez ere; esate baterako, soja eta patata. Gaur egun, gure barietate autoktonoekin lehiatzen diren eta zokoratzen dituzten barietateak ari dira sartzen Nafarroan.

Transgeniko horien produkzioaren ondorioz eta errealitateaz gain, gure nekazariak gero eta kezkatuago ageri dira, merkatua monopolizatu eta kontrolatzen duten enpresen mende daudelako erabat. Enpresa horien kontrola hazietatik hasi eta pestizidetara, ongarrietara eta produktuen merkaturatzera heltzen da, eta mendekotasun eta babesgabetasun erabatekoan uzten ditu lurra landatzen dutenak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bila, proposa eta susta dezan ordezkoren barietateen laborantza eta horien dibertsifikazioa, halako moduan non transgenikoak kendu ahalko baitira eta produkzioa aldatu.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gure erkidegoan transgenikoak modu masiboan ekoiztearen aurka dagoela, eta gisa horretako laboreetara bideratutako azalerak arian-arian gutxitzearen aldeko apustua egiten du.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Zilbetiko harrobia ustiatzeko baimena eman aurretik eska dezan egun ustiatzen duen Eugiko harrobia lehengoratzeko proiektua.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Zilbetiko harrobia ustiatzeko baimena eman aurretik eska dezan egun ustiatzen duen Eugiko harrobia lehengoratzeko proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Magna enpresak Zilbetiko dermioan –Erroko Udala– meategi berri bat irekitzeko prozesuaren

izapidetzean, aldeko ebazpena lortze aldera enpresa horrek eman duen argudio nagusietako bat izan da harrobi berria ustiatzeak ingurunean egindako kalteak konpontzeko eta leheneratzeko konpromisoa hartzen duela, behin funtzionatzeari uzten dionean. Hori ezinbestekoa da izapidetu nahi den edozein ingurumen-azterlan izapidetzean; horren ardura duten enpresek, ordea, gero ez ohi dute konpromiso hori betetzen.

Kasu honetan, enpresa bera da –Magnesitas de Zubiri– ustiategi berriaren eta Eugin itxiko denaren titularra; hortaz, arrazoizkoa da Eugiko egungo harrobian urteetan zehar egindako aprobetxamendutik heldu diren ingurumen-konpromisoak bete ditzan eta, horrenbestez, egindako ingurumen-kaltea lehenera dezan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Magnaren Zilbetiko meategi berria ustiatzen hasteko behin betiko baimena eman baino lehen Ingurumen Departamentuan aurkez dezan Eugiko dermioan egun ustiatzen duen harrobia leheneratzeko proiektua; izan ere, Zilbetikoak Eugikoa ordeztuko du.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen die Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak eskatzen baitie Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Errege Bardea legez babestutako lurraldea da, Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserbaren figurarekin.

Lurralde berezia da, 42500 hektareakoa, eta estepako habitatak ditu, bai eta flora eta fauna oso aberatseko mediterraneo-basoaren atalak ere.

Hogeita bi entitate gozamen-kidek osatzen dute lurraldea kudeatzen duen Bardeako Komunitatea (hemeretzi udal, bi ibar eta monasterio bat). Batzarrean, boto bera dute Olivako monasterioko fraideek eta hiririk handienak –Tutera, 30.000 biztanle–.

Bardean dago, 1951tik aitzina, NATOk Europan duen tiro- eta bombardaketa-poligono handiena, aitortua duen ingurumen-babes juridikoa gorabehera.

Tiro-poligonoak 2.222 hektarea hartzen ditu, baina hegazkin militarrek, berez, aire-eremu osoa baliatzen dute, berrogeita hamar kilometro baino gehiagoko itzuliguruko erradioan.

Ukitutako herriei, Bardearekin muga duten edo udal mugapearen zati bat Bardean duten herriei, ez zaie zuzenean inoiz ere galdetu ea tiro- eta bombardaketa-poligonoa bertan egotea nahi duten ala ez.

Herritarren borondatearen gaintetik, erreferendum bidez adierazia, beti jarri dira interes militarrik.

Hiru hamarkadatan zehar, Nafarroako zenbait udalek eta Nafarroako Parlamentuak erabaki bana onetsi zuten, Bardeako tiro-poligonoa ixte aldera.

Poligonoa gure lurraldean 1951tik egon izanak Nafarroako alderdi politiko guztietako ordezkarien adierazpenak eragin zituen; halatan, jada 2001ean eskatzen zuten poligonoak Bardean ez jarraitzeko. Jadanik une hartan, UPN-PPk amore eman zuen Espainiako Gobernuaren asmoen aurrean; aitzakia izan zen denbora eman behar zitzaiola Bardeako tiro-poligonoarentzako kokaleku berri bat bilatzeko. 2008an, hartara, hitzarmen bat sinatu zen, instalazio militarra beste leku batera eramateko konpromiso irmoarekin.

Poligonoaren aurkako Batzordeak susmatzen zuenez, denbora irabazteko aitzakia bat zen. Bardeako tiro-poligonoa kentzearen alde Nafarroako erakundeek erakutsi duten ahuleziak indarra eman zion Aznarren Gobernuari, eta Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen. Gero, horixe izan zen Bardeako Komunitateko lehendakariak jarri zuen aitzakia nagusia, Defentsa Ministerioarekin 2008an hitzarmen berri bat negoziatzeko.

2008a iritsi zen eta susmoak baieztatu egin ziren. Baina UPN-PP bikoteari PSOE batu zitzaion –garai hartan, Espainiako Gobernuan zegoen–, zeinak tiro-poligonoari buruzko bere jarrera aldatu zuen oposiziotik gobernura pasatzean. Halere, UPN-PP Defentsarekin hitzarmen berri bat egitearen alde bazegoen ere eta PSOEek boterean metamorfosi bat izan bazuen ere, lehenagoko jarreretatik aldentzen zuena, Tuterako Udala salbuespena izan zen, alderdi guztien arteko batasunari eutsi baitzion, eta Bardeako Komunitatera tiro-poligonoak jarraitzearen aurkako botoa eramateko konpromisoa hartu baitzuen.

Halere, bozketaren bezperan, UPNko eta PSNko zuzendaritzek beren udal taldeei agindu

zieten tiro-poligonoak Bardean jarraitzearen aldeko botoa emateko. Udal taldeek txintxo-txintxo bete zuten agindua, eta Azkoiak izan zen tiro-poligonoak Bardean jarraitzearen aurkako botoa eman zuen bakarra.

Halatan, gainontzeko hemezortzi udal gozamen-kideek –Tutera, Erronkariko eta Zaraitzuko ibarrak eta Olivako monasterioa barne–, historiarako batzar triste hartan, baietza eman zieten Bardean su erreala egindako maniobren gastu militar neurrigabeei, ezetza eman zioten gastu horiek gizarte-helburuetarako eta zerbitzu publikoak hobetzeko erabiltzeari eta baietza eman zieten jasan behar ditugun eragozpenei eta arriskuei.

Azken batean, baietza eman zioten, UPNren eta PSNren aldeko botoekin, tiro-poligonoari, eta ahalbidetu zuten Bardeako tiro-poligonoak beste 20 urtez irautea, haren jabetza soila Bardeako Komunitateari lagatzearen truke eta, batez ere, Ministerioak Bardeako Komunitateari ematen dion ordain ekonomikoa nabarmen igotzearen truke.

NATOren hegazkin militarrek tiro- eta bonbardaketa-praktikak egiten dituzte aldi-aldi, eta horietan egiazko armak erabiltzen dituzte, baina erabateko obskurantismoz gordetzen dute erabiltzen duten munizio-motari buruzko informazioa.

Aldian aldiko txosten fidagarriak eduki beharra dago, erabiltzen den edozein munizio-motak eragindako ingurumen- nahiz giza kalteei buruz, eta zeharo baztertu beharra dago uranio pobretuaren erabilera ez ezik, tiro-poligonoaren inguruko flora, fauna eta gizakien osasunerako hondakin toxiko eta arriskutsuak sor ditzakeen beste edozein elementuren erabilera ere.

Ez da informatzen erabilitako armen balizko albo-ondorioez, hegazkinek bonbak jaurti aitzin egiten duten ibilbideaz, edo bonbardaketek tiro-poligonoaren mugetatik kanpo ukitzen duten Natur Parkearen azalera.

Gogora dezagun, gainera, Bardean tiro-praktikak diren horiek egiazko biktimak eragiten dituzten bonbardaketa erreala direla NATOk esku hartzen duen herrialdeetan.

Bardeako tiro-poligonoaren 60tik gora urte hauetan hogeita hamar istripu larri inguru gertatu dira.

Istripuen zerrendan ageri dira lurra jotako hegazkinak, bomba galduak, entrenamendu-eremutik kanpoko leherketak eta pilotu askoren heriotza.

Zenbait istripuren kasuan ozta-ozta ekidin da tragedia. Hala gertatu zen, esate baterako, 1988ko otsailean, F-16 batetik lau erregai-andel askatu eta

Cortestik 1.000 metrora erori zirenean; 2000ko martxoaren 13an, bi F-18k airean talka egin eta Ejea de los Caballerosko hiritik –15.000 biztanle– bi kilometro baino gutxiagora erori zirenean (hegaldi-segundo bakar batek ekidin zuen hondamena); edo 2009ko apirilean, F-18 bat Valtierra hirigunetik hegaldi-segundo gutxi batzuetara zegoelarik lurra jo zuenean.

Aireko armadak Bardean egin ohi dituen milaka entrenamendu eta arma-proba egiten jarraitzen dute urtero, misil eta su errealaekin urtero egiten diren Ekaitzak barne. “Sirio-Tormenta 2012” aurtego operazio militar horretan, hedabideen bidez jakin ahal izan genuenez, herritarrei abisatu ere ez zitzaion egin. Baina abisua eman denetan ere, ezin konta ahala arrisku pairatzen dituzte tiro-poligonoaren inguruko bizilagunek.

Aireko armadak bere web-orrian informatzen duenez:

“Ariketa hau da Aireko Armadak urtean zehar egiten duen garrantzitsuena, bai erabilitako aireontzi, baliabide eta instalazio kopuruarengatik, bai ukitutako azalera geografikoarengatik.

“Sirio” fasean zehar praktikan jartzen dira bakegaria aktibatuta ez dauden Aire Defentsaren planak. Fase horren xedea da Konbateko Aire Agintaritzaren trebakuntza-maila igotzea agintaren eta kontrolaren arloetan, bai instalazio finkoetatik, bai hedagarrietatik.

Orobat lantzen da Aireko Defentsa Sistemaren sartutako Armada eta Lurreko Armadako entitateekiko eta sentsoreekiko konektibitatea... “Ekaitza” fasean zehar arerioaren aire-boterearen aurkako misioak eta lur-azaleko indarrak babesteko egiten dira, arma erreala erabilia aire-lurra operazioak prestatu eta burutuz.

Fase honetan, inplikaturako unitateak Zaragozako Aire-basera hedatzen dira, aire-lurreko arma erreala Bardeako poligonoan erabiltzeko. Hemen, protagonismoa unitatei dagokie, eta zehazki maila taktikoaren plangintza eta exekuzio arloen trebakuntzari (...).”

Eta baldin eta norbaitek oraindik uste badu gerra-jolas bat baino ez dela, hauxe dio, amaitzeko, aireko armadaren informazioak: “Entrenamendu honek ahalbidetzen du Aireko Armadaren barne-makineria koipeztaturik mantentzea, behar bezain azkar eta behar besteko eraginkortasunez erantzun ahal izateko, baldin eta krisi egoera batean Gobernuak uste badu esku hartu behar duela, iaz Libiako krisiarekin gertatu zen legez.”

2008ko abenduan, UPNk eta PSNk babestu zuten beste hogeita hamar urtez mantentzea

NATOren armadak prestatzen dituen tiro- eta bonbardaketa-poligono bat, herrialde ugaritan egiten dituen gerra- eta suntsipen-misioetarako, arriskua eta segurtasun eza dakarkiena inguruko herrietako biztanleei, eta ingurumenaren babesari eraso egiten diona Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserba deklaraturako lurralde batean.

Tiro- eta bonbardaketa-poligono hau eraistea beharkizun bat da, ondokoetan oinarritua: bakea aldezteko militarismoaren eta gerraren aldean, herritarren segurtasuna ziurtatzeko premia eta Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserba deklaraturako lurralde baten balio ekologikoen babesa.

Gaur egun, gainera, beharizan sozial eta ekonomiko bat ere bada poligonoa ixtea.

Krisi ekonomiko ikaragarria bizi dugu, langabezia eta pobrezia tasak jasanezinak dira, eta horregatik da premiazkoagoa gastu militarren aldean gastu sozialak lehenestea.

Bardeako tiro- eta bonbardaketa-poligonoa ixteko arrazoiak asko dira, eta asko dira erantzun gabeko galderak.

Zeintzuk dira “arma erreal” horiek? Zer arrisku bizi dugu arma horiek probatzen dituztenean eta “arerioaren aire-boterearen aurkako misioak” egiten dituztenean? Zergatik ez digu inork ere azaltzen zein diren bizi ditugun “arrisku errealak”?

Hezkuntzaren, Osasunaren, Mendekotasun Legearen eta beste zerbitzu publikoen kalitatea arriskuan dago; farmazia-gastuen koordainketari buruzko arauak onesten ari dira; funtzionarioen eta pentsiodunen diru-sarrerak eta bizi-kalitatea gutxitzen ari dira; hainbat eta hainbat pertsona langabeziara doaz, eta bitartean, zenbat kostatzen dira gerrako hegazkinak? Zenbat probatzen dituzten armak? Zenbat militarren, hegazkinen eta armen garraioa? Noren aurka joko dute?

Galdera gehiegi dira, eta inork ez digu erantzunen. Arrisku eta obskurantismoz betetako urte gehiegi. Denbora gehiegi, ondoan inork nahi ez duen instalazio militar bat alboan edukitzeko. Para-

doxa gehiegi, Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserba deklaraturako lurralde baten erdian tamaina horretako instalazio militar bat edukitzeko. Noiz arte? Ez da galdera erretoriko bat, ezpada galdera bat: tiro-poligonoak noiz arte jarraituko du zulatzen Bardea, kontzientziak, bakea eta ingurumena?

Hori dela-eta, Ezkerreko-Parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen die Defentsa Ministerioari eta Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Bardeako tiro-poligonoa ixtearen aldeko XXV. mar-txa, zeina 2012ko ekainaren 3an eginen baita.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gober-nua premiatzen du “Sirio-Tormenta” izeneko ope-razioak egiteari utz diezaion eta gastu sozialetara-ko eta langabeziari aurre egiteko baliak ditzan tiro-poligonoarentzako eta tiro- nahiz bonbardake-ta-praktikak egiteko baliabide ekonomikoak.

4. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministe-rioi exijitzen dio behar adina informazio eta egi-azkoa eman dezan Bardean erabiltzen diren arma-motei buruz –zehazki, “Sirio-Tormenta 2012” izeneko operazioan erabilitakoei buruz– eta horrek herritarrentzat, faunarentzat eta florarentzat dituen arriskuei buruz.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du egin beharreko kontrolak eta analisiak egin ditzan, tiro-poligonoa Bardean dagoen bitartean, ziurtatze aldera Bardean ez direla egiten herritarren osasunerako kaltegarriak diren esperimendu edo praktika militarrik.

6. Erabaki hau igorriko zaie Nafarroako Gober-nuari, Defentsa Ministerioari, Bardeako Komunitateari eta Poligonoaren aurkako Batzordeari.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 3an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Osasun Etxeko Emakumeari Laguntzeko Zentroa abian jar dezan.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadila Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sarrigurengo Osasun Etxeko

Emakumeari Laguntzeko Zentroa abian jar dezan. Mozioa 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa jaits dezan.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadila Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa jaits dezan.

Mozioa 2012ko apirilaren 20ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Esako urtegian izandako luiziei buruzkoa.*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Esako urtegian izandako luiziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari Anai Astiz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2006an luizia gertatu zen Esako urtegiko ezker aldean, ibaian gora. Orain dela gutxi, beste luizi bat gertatu da eskuinaldean, ibaian behera.

Hona galdera:

Ikuspuntu tekniko batetik esan al daiteke faila berak eragin dituela azken luizi hori eta 2006an gertatutakoa?

Nafarroako Gobernuak ziurta al dezake arris-
kurik ez dagoela eta, hartara, presa handitzen jarrai daitekeela?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Burlatako eskola-tailerrari buruzkoa.*JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Burlatako eskola-tailerrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingu-
rumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Burlatako eskola-tailerra 1994an sortu zen. Burlatako Udalak sustatu zuen eskola-tailerra, eta bertan ondoko arloetako prestakuntza ematen zaie ikasleei: igeltserotza, elektrizitatea, iturgintza, lorezaintza eta soldadura.

Eskola-tailerraren funtzionamendurako eta finantzaketarako ezinbestekoa da Nafarroako

Gobernuaren konpromisoa (Prestakuntza eta Enplegurako Programa Publikoaren esparruan), eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarena.

Eskola-tailerrak prestatzen dituen ikasleek zaharberitze nahiz mantentze lanak egiten dituzte aldi berean.

Haren ekintza ugarien artean daude Burlatako Udal Jauregitxoaren zaharberitzea eta Udal Parkearen mantentze-lanak (26.000 metro koadro).

16 eta 24 urte bitarteko gazteentzako 65 ikaspostu eskaini ditzake, lan-kontratu eta guzti, eta laneratzera bideratutako prestakuntza ematen du.

Krisi ekonomikoa lehertu baino lehen, eskola-tailerrean diploma lortutako ikasleen % 80-90ekoa zen laneratzeko ikasleen ehunekoa.

Une honetan, halere, eskolak atek itxi behar du, desagertu egin baita erakundeek –berezi-ki, Nafarroako Gobernuak– emandako laguntza eta finantzaketa.

Burlatako eskola-tailerra ixten baldin bada, tresna bat desagertuko da, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunekiko gazteen laneratzeari

eta prestakuntzari begira urteetan emaitza bikainak eman dituen.

Burlatako eskola-tailerrak zabalik jarraitu behar du, baina horretarako ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak eskola finantzatzen jarrai dezan.

Horregatik guztiagatik, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak ondoko galderak erantzutea nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak zer dela-eta kendu du Burlatako eskola-tailerrarentzako finantzaketa?

– Zein izan da Nafarroako Gobernuak eskola-tailerrari, sortu zenez geroztik, emandako finantzaketa? Zenbat gazte prestatu eta laneratu ditu?

– Nafarroako Gobernuak zer prestakuntza-alternatiba eskainiko die Burlatako eskola-tailerrean ikasten duten gazteei?

– Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik erabakitakoa zuzentzeko eta Burlatako eskola-tailerren finantzaketari eusteko?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, gizarteratze- edo laneratzeko-errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioetik eratorritako lansari-gastuen finantzaketari buruzkoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, gizarteratze- edo laneratzeko-errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioetik eratorritako lansari-gastuen finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion.

Orain dela egun batzuk argitaratu da Nafarroako Gobernuak finantzatuko dituela gizarteratze edo laneratzeko errentaren jasotzaileak kontratatzearen lansari-kostuak.

Zer kontusailetatik aterako du aipatzen den milioi euro hori?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, 2010az geroztik irakaskuntza publikoan izandako murrizketen ondorioz aurreztutakoari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2010az geroztik irakaskuntza publikoan izandako murrizketen ondorioz aurreztutakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Aurrekontu-murrizketen aplikazioaren, defizit publikoa doitzeko neurrien eta gastu publiko arrazionalizatzeko neurrien ondorioz Nafarroako irakaskuntza-sistema publikoan bata bestearen ondorengatik gertatutako murrizketak ikusita, ondokoa jakin nahi dugu:

Zenbat aurreztu da Nafarroako irakaskuntza-sistema publikoan, 2010etik aitzina egin diren murrizketen ondorioz –Hezkuntza Itunean onartutako plantillei dagokienez ezarritakoa ez betetzea; irakasle funtzionarioei soldatak murriztea; 2011n Bigarren Hezkuntzako plantillak murriztea; ikasketak egiteko baimenak, erretiro-sariak eta familialaguntza kentzea; laneko bajak ez ordezkatzeta–?

Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak iragarri duenez, 2012-2013 ikasturtean igo egingen dira ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako irakasleen eskola-ordutegia eta ratioak. Horren ondorioz, zenbat murriztuko dira irakasleen plantillak? Administrazio Publikoak zenbat aurreztuko du hartara?

Zenbat lanpostu galduko dira itunpeko irakaskuntza pribatuan ratioen igoera aplikatzearen ondorioz?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

